

ZUBEROTAR LEGE HIZTEGIA HAMASEIGARREN MENDE HASTAPENEAN

Txomin Peillen

Jacques de Bela, Jakes Belakoa, Maulen 1585.an sortua eta 1667. urtean hil zen higanaut idazle famatuak, gure herriaz, gure legez, gure kondairaz, milaka orrialde esku-idatzirik, utzi ditu. Esku-idazki horien artean, zuberotar abokatu eta herri-gizon horren lumatik, Pariseko Bibliothèque Nationale-an dagoen *Commentaires sur la Coutume de Soule* edo *Zuberoako Foruaz Irazkinak*, obra ikertu dut. Hain zuzen, irazkin horiek, Maulen eta Bordelen lege gizonak irakurri, erabili, aipatu dituzte alde batetik, 1520.an, gaskoinez argitaratu zen Zuberoako forua, XVII.mendean nekez irakurtzen baitzen, bestetik ofizialtasuna gatik hamazazpigarren mendean egin berri zen frantses itzulpena ez baitzen aski argi.

Bigarren itzulpen hortan, itzuli gabe geratu diren gaskoin hitz asko argitu behar ziren, baita lehen itzulpenean euskaratik ezin itzuli ziren hitzak ere, edo erdal hitzarekin batean gure mintzairan eman zirenak; horiek, azkenek naute lan honen egitera zirikatu, bereziki hitz gehienak ez baitira euskal hiztegi-tan bilduak izan eta gehienak ez baitira euskal hiztegi-tan bilduak izan —foruekin batean— galdu direlaketaz eta oraingo kondairalariek erabil baiditazkete.

Gure hiztegi hontan nonbait berrogeitahirur hitz badaude, hamazazpigarren mende hastapenean oraindik ezagunak eta 1520.foruan bilduak, Erdi-Aroko euskararen jakile eta lekuko direnak. Hitz gehienak ez dira maileguak, baina euskaldun zaharrek beren baitatik eginak. Zoritxarrez, ezin itzuliak baik ez dira salbatu, halan ere gelditzen direnek erakusten digute euskaldun zaharrak ez direla mutu izan legezko gauzak adierazteko, nahiz ez dituzten gehienetan idatzi. Hitz zerrenda hauek ere artzain gizarte, laborari gizarte, ofiziale gizarte baten mirai irudia ematen digute eta Bela egile nobleak berak dio Errepubika bat bezalazazpi potestatez gobernaturik izan zela aintzinako Zuberoa; hiztegiak, gizarte berdinzale horren irudia uzten digu.

Aipamenen zehaztasunerako huna zer laburpen erabiltzen dudana:

Zuberoako foruaren artikulua, Z. O. Zuberoako forua, B. Belaren orrialdea, A. aldatzaileak.

I. **Abadia:** “Gaskoina, bearno ta Zuberoan etxe mota batzuei **abadie izena ematen zaiete; haien artean badira etxeko jauna aitonen seme lur-jabe dena, baita Leztarreko Kortean epailari direnak ere, halaz noble. Hala dio,**

gotika hizkietan idatzitako eta Zuberoan aurki ditekean “Vieux censuel du Roy” delakoak; badira ere aitonen semetasuna ez duten abadiak. Bi kasuetan izen berdina daukate eta erretorgoa baten, laiko jabeak, baitira etxe horietako nagusiak, ta beren parropietan detxemakide” (Z.O. arrêt B. 677, A. 1004).

Zuberoan *aphatia* izenpean ezagutua da etxea, eta nagusiari *abat* esaten zaio.

2. **Abelhatsegarri:** “hitz hori hirur zatiz egina dago: **abel** edo **abere** (bête) **hatse** (hatsarre-commencement) **garri** (pour); zeren eta emaileak halaxe hartzaileari abere-talde baten abioa emaiten diola jakinerazten baitio; miga, behi, nahiz beste kabale bat izan diteke, eme ernaria gehienetan, nasai ditezen eta ezkonberriek emaitza hori hartzean, probetxu atera dezaten” (Z.O. 24 B. 412, A. 596).

Hitz hori ez da gehiago ezagutzen baina luzaro iraun zuen ohitura horrek, 1520.urtean Foruan aipatzen baita eta gure askazgoako paperetan eta kontratuetan horiek irakurri ditugu. Lehenik Isabela d’Errecart de Peillen, Dagerragoihen Idaunzeko, Idaunze herriko, premuarekin ezkondu zenean, Barkoixe Peilleneneko etxekoek, doteaz kanpo, hitzeman zuten bi ergiren ematea: “*Le mesme d’Errecart a promis de bailler à sa dite fille deux petits junes boeufs de dix-huit mois chascun qui seront de la disposition de la dite future épouse*” (1688.eko Otsailaren 7 an).

Etxeko premua, etxen ezkontzera doalarik, emazteak berrogeitabost libera elartzen dizkio, emaztegiak bi miga eros detzan (1690.ko Urtarrilaren 3 a).

3. **Aitzin saroe:** “lur hedadura hori, **aytein sarüe**, zedarriz, mugarriz inguratua da eta hor, lehen helduak, lehen iritxiak abereak bereziki ardiak sar ditzazke”. Oraingo “eüskaran” *sare* (sae) goiko mendian, bazka eremu zabal da; artzain-olha bakoitzean bizpalau *sare* berhezten ahal dira. Azkuen hiztegiak “arditegi” esannahiarekin hartzen du. Zuberoan, gure egunetan, ez du erran nahi hori, batere (Z.O. 14, B.230, A.324)

4. **Altxubide:** “*eta altxubide da Mauleko merkatura doan bidea, baita bortura (mendi goihenera) abere taldeak laguntzeko erabilgarri dena ere*”... (Z.O. 13 B. 230-231 A. 324-326)...”

“*Hamalau beso zabaltasun behar du.... altxubide-ak*...” (Z.O. 25 B.662 A. 986)

Lehen oharra, altxubidea erregebidea baino zabalago da azken honek bederatz bi beso baizik ez baitu. Bigarrenik hitz hori ez da gehiago erabiltzen bide zaharra, artzainbidea erraiten zaio. Harriet eta Azkuek era *altxo-*, *altxu-* herroa artalde erran nahiarekin ekartzen dituzte eta egia da Oihenarten erran zaharretan batek diola

10. *Aharra ziten altxonak,
ager ziten gazna ohonak.*

(*Atsotizak eta neurtizak* Donostia, 1971, 31. orrialdean) Erran zahar hortako *altxonak*, “artzan mithil, artzai morroi” omen dira Larresoro-k egin oharraren arauera.

* * *

5. **Aradera:** “... kabaleak, abereak, gozoan erdizka hartzaileari, euskaraz **aradez izena ematen zaio... eta hitz horrek ara** “oiharzun” herroa badu...” (Z.O. 19, B. 358, A. 508) (ikus *erkida*)

6. **Arbaila:** “eskuineko aldetik, Garindaiñe, Urdiñarbe, Müskildi, Pagola, Mendi, Mendikota, Ozaze, Haunze; ezkerretik Irabarne, Gotaiñe, Doneztebe Zalgize, Iruri.” (Z.O. 3, B. 87, A. 127)

7. **Artabe** (Aurkibidean, “mesure” irakurtzen da, baina ez da hitz hori orrialde hortan, B.675.delakoan irakurtzen.

8. **Baratz ala barats:** zeren Mauleko hiria, Züberoan, harresiz, ez inguratu izan arren, erretenez egina da, baratz deritzaie (euskaratik hizkuntza hortan barat ia, etsaiaren geldiaraztea baita)...

Gure ustez, *baratz* hori ez da euskaratik etorria, baina gaskoinetik zuzenka, bearnesek *barat*, *barats* baitiote eradarazko “fossé, foso” delakoari.

9. **Bayle, baile:** “Leztarreko Kortean kargadunak dira **bayle messenger de justice**, mezulariekin batean; frantsesez **baillif** deritzaien gisakoak dira, hemengo hizkuntzan **bayle**...”

(Z.O. 4, B. 92, A. 135)

Hitz horrek ez du deusik ikusteko *bayle* fr. “morroin, mutil” hitzarekin baina *baile* (lat. *bajulus*, occ. ital. *baile*, mezulari) hitzetik dator, nahiz Züberoan kargu hori frantses kargua baino gorago izan eta *baillif du palais*, justiziakoa den, eta etimona bazterturik *messagier de justice* beste kargu bat da.

10. **Barhü:** “*Maule inguruko herriek Barhu vic-a osotzen dute*” (Z.O. 3, B. 86-87, A. 125-126) *Barhu* hitz horrek *barru*, *barruti* delakoen itxura eta erran nahia berdinxka dute; herro berdinarekin badira etxe aurreko korrallea, *barrio* eta zaldien tegia, *barrüki*; *Barru* soilik ez da Züberoan erabiltzen; berdin gertatu da *barren* -ekin, Santa Graziko izen zahar bat *Eiherabarren* da, eta 1385.urtean Bearnoko muga euskaldunean Lexozen *Barhanetxe* irakurtzen da, orain, berriz, Larrainen, Santa Grazin eta hurbil herri bakoitzean *Barnetxe*, nahiz *Etxebarne*, itxurape berriagoak dira. Ez da euskal hiztegiatan irakurtzen, **barhu**.

11. **Betatü:** “norbaiten, herri baten, nahiz herri talde baten jabetasuna izan diteke betatü bat, bedat gaskoinez... “Bedats boalers” idi betatü delakoak Erramü egünetik Egüberriraino idiei debekatuak dira. Orduan ere, ez da zilegi handik zuhaitz egoiztea betatüko auzokideek beren baimena eman gabe... (Z.O. 15, B. 285, A. 395).

Betatü ez da euskal hiztegietan irakurtzen, baina Urdaitzen (Santa Grazin) Goiko ibarraren eta behekoaren artean dagoen mendi bizkar bati *Bethatü* deritzaio. Herri hortako erromanelizaren sarreran ate-arlazeako harria berritu denean, herri hortako gizon batek hegi hortatik bizkarrean ekarri du harria gertaera harrian zizelatua delarik euskarazko hitzekin:

HAU HARBELEK EKHARRIA BIZKARRIAN BETHATE ZOLA-TIK 1864.ian.

12. **Bizkai edo bizkar sarüe:** “borturako bidean ikusten diren bazka batzu, ezin betatu direnak, **biscal** edo **biscar sarüe** izenekoak dira” (Z.O. 14, B. 230, A. 324-327).

* * *

13. **Bortü:** “euskaraz Etxamendi-tik bereizteko, **Bortu** hitza erabilten da”. Orain ere, aitak “Zuberoan Artzain” Eusko Folklorerako idatzi zuen artikuluan, Bortü, goi mendia da ardientzat egokiena, 1200-2000 metrotaraino mendia, berriz, behien beko mendia. 800-1200 metrotaraino...” (Z.O. 14, B. 230, A. 324-327). Hiztegietan dago.

14. **Bortüpe, bortübe:** “bortüko zedarritatik beherago diren gaiñak eta bortüko bidean direnak” (Z.O. 14, B. 230, A. 234-237) Hiztegietan eztago.

15. **Bortübetako saroe:** “bortübetaco sarüe izeneko bazkak, bortübetan daude eta ezin dira bethat...” (Z.O. 14, B. 230, A. 324-327).

16. **Boto:** “... euskaraz eta gaztelaniz, **voeu...**” Hiztegietan dago (Z.O. 27, B. 107, A. 156).

17. **Botoi:** “beste norbaiten —gehienetan aitonen seme baten— lurretan etxea ta etxadia jarri dutenak, noiz eta hitzharmen bat eginik izen den zinez eta botoz, emalleen eta hartzaileen artean, botoi hitza euskaraz eta gaztelaniazko boto hitzetik eta biak latinezko **votum...** (Z.O. 27, B. 107, A. 156) “Botoia, gizon librea da nagusia utz dezakena”.

Oihenartek hitz hori aipatzen omen du, norbait botoz lotua den batez erabiltzen dela, dio, botoi. Ez da gaskoin hitza. Lhanderen hiztegian 181. orrialdean irakurtzen da. Oihenarten erran zaharrak dio

228 *Her-jauna othoiez dagoenean*
botoiari, keinuz dauke uheari.

Bela-k dio botoia bere jaunari fidel egon behar zuela eta batzuetan zerbitzu batzu eman; halaz ere esaera zaharrak dionaz ez den otoituz baizik egiten, nahiz Jaunak uheari makilari so egiten zion.

18. “Degan Parropiako gizonik argiena izan behar du, bere abisu, aholku, ta aginduekin **vie** edo **degaerie** bakoitzean, herriko justiziaren zaintzale buru izateko ta Batzar Nagusietan (Zinbidetan) deputatu izateko. Herriak

izendatuak dira “bozkaz” auteskudez; degan batek hamar parropiaren ordezkari da; kargua ezin du ukatu eta baldin egiten badu idi baten saria isun badu eta herrialde batek *vic batek ez badu izendatzen berdin*” (Z.O. 6, B. 108, A. 157).

Bela-k uste du hitz hori latinetik datorrela, baina gure ustez gaskoinetik hartua, hizkuntza hortan *degâ, decâ* baita gizona eta *degaerie* herrialdea, Zuberoako foruan bezala.

19. **Domec:** “etxeak legez jartzen eta izenak ematen hasi zelarik Zube-roan, herriko etxe ohoragarrienari **Domec** edo **Sale** izena ezarri zioten; Domec, latinezko census dominicatus edo agros dominicatus “chose du seigneur” gisan izan zen. Jakile bezala euskaraz holakoari **Jauregui**, nola **Jaunen egui Jauntegui** -ren lekuan eta frantsesez “logement du dominateur” ou “lieu de domination” Eta herri hortan aitonen etxe batzu baldin baziren nagusiari, gehienari Domec izena ematen zitzaion, besteari Sala (latinezko aula)” (Z.O. aurk. B. 6, A. II).

* * *

20. **Erkida:** “et partialis pecora dicuntur ea quorum foetus certis portio-nibus inter Dominum et pastorem dividuntur, tamquam proscenda data, *sed estimata ut in fructu et argumenta habentes quod praetium pecoris excedit, holaz ardien ilea, gazta ta beste probetxu ta onura txipiak erdizka egiten dira, hartzaile ta emailearen artean... Holako kabalea erdizka emaitean (euskaraz **erkida**) ez da dirurik sartzten abere buruak elkarren artean baitira, hartzaile (euskaraz **arader**) eta emailearen artean. Erkidan arader denak, sosik, dirurik sartu ez duenez gain ezin ditu kabaleak hil, sal, ez beste gisaz erabil, jabearen baimenik gabe... Jon Done Martin batetik bestera doa erkida...” (Z.O. 20, B. 358, A. 508) eta (Z.O. 15, B. 371, A. 526)*

Oraingo euskaran zuberotar gehienek *gozoalat* hartzea, *gozoalat* emai-tea deitzen dute (frantsesez *migain*). Tratu hortan beti norbait galtzale zen ez baziren biak, Zalgizek nonbait XVI.mendeko erran zaharra emaiten digu:

16. *Erkida, berho xoriendako.*

(Erkida lurra, sasi txoriendako).

21. **Etxama:** aurkibidean “maison-mère, euskaraz **etxama**, ikus botoi”; gero botoi artikuluetan ez du aipatzen.

22. **Etxamendi:** “bortü ezten mendia” (Z.O. 14, B. 230, A. 324-327).

23. **Gaitzürü.** “frantsesez, cartane, boisseau, litron, bouchet quart de conque; euskaraz *gaytçuru...*”

24. **Gaztelü:** “Ahargotxipi mendian, hango gaztelu ondar eta erreteiei *gaçtelaria* deritzaie leku hori (euskaraz ga telu tokia baita) (Z.O. aurkezpena B. 5).

25. **Gezi:** “vassal, basailu hitza oroiterazten du euskarazko **gueci** hitzak, dardo, palanka gisa erabilia eta nonbait diote Galia Zharrean **goessa** ziotela dardoari, hortik beraz “vassal” hitza.” (Z.O. aurk B. 7, A. 13.)

26. Hilak biziari argi “hala dio euskarak frantsesezko - le mort saisit le vif - delako artikuluari. Arauki hau eginik izan da ordeinu gabekoaren askazi, hurbilenak, hullanena ondorioa har lezan, ondoko hori alde kide edo saiketskide ez izanik ere, izanik ere ezkerreko-haur, atzerritar ala beste, hilak biziaren begiak irekitzen irikitzen baititu, hala dio euskarak **hilac biciari argi**. Ordenuzko ondorioa deritzaionak bete beharrezko eginbidea baldin badu, aldiz Foruzko herritar hontan, **ab intestat** uka diteke, inbentario egin ondoren har, baina erorzetako zorrak eta besteak ordaindu gabe. Halaz ere, baldintza bezala, ondoko jende horrek Zuberoako ohituraz baliatu nahi badu, ondorio horren ardiesteko hil ondoren urtebetean bere burua aurkeztu behar... (Z.O. 27, B. 490, A. 716).

27. **Iheska:** “aterbe gisa eta bortuetako betatuetan, axolbean hartzeko egiten dena”. (Z.O. 14, B. 230, A. 324-327).

28. **Jagues, Jages:** “hala erraiten zaio Zuberoan Jaca-ko arditari”. (Z.O. 7, B. 125, A. 182).

* * *

29. **Korstobolo:** “septem fratrum eguna edo Corstobolo. Egun hau ikusi dudan bezala Uztailaren hameka da (Kristobalen metatesia ta haren lekuan euskaraz erabilia); egun hortan da bethatu batzuen hogeieria bortuan” (Z.O. 14, B. 230, A. 324-327).

30. **Labaki:** “labaquis edo treytins, fournats” Ereitzarako, auzo lur edo lur aske bat garbitzen eta itultzen denean. (Z.O. 13, B. 217, A. 306) Oraingo zuberoeran *labaki*, *llabaki* hitza ezagun da; guti egiten da. Aita zenak etxean ikusi zuen egiten Etxagaraiko Sorhoan, ira ondoak, oteak, sasiak ebaki, metatu, erre egiten ziren, gero lurra itzultzen aratzen nahiz belardi nahiz arto-alor baten egiteko.

31. **Larrari:** “...hala herri hontako artzain asko eskusatzen dira, artzain olha bakoitzeko eskatzen zaieten ahari **larrari** delakoaren pakatzetik; batzuk sei sos bederatzidihar turnes (six sols, neuf deniers tournois) ordaintzen, besteek ezer ez, baina Fortaner d’Ira abal-ek eskaturik, Bordeleko parlamentuan erabaki zen, **potestat** buruzagiek zerga horrez askatzeko zuzenbidea zutela; d’Ira abal hori Zuberoako erregeren prokuradorea zen”. (Z.O. 2, B. 68, A. 99).

32. **Orda:** “Zuberotar Batzarre Nagusiaren biltzeko kanpaia da. Eta hirur besoek bildu behar dutenean Zuberoan Orda Kortearen deritzaio, su kanpai deiez eginik baita eta euskaraz dei hori **orda baita** (Z.O. 14, B. 99, A. 46). Gure ustez hitz horrek bearnesez *ourda*, Bigorrako gaskoin *orda* hitzekin

zer ikustekoa du, nahiz itxura, nahiz adieraziaren aldetik. Oraingo zuberorran, “tocsin, rebato” *sü-zeñü, deihadar* erran genezake, orda, galdurik baita-go”.

* * *

33. **Prim:** “ondorioko bezala askazgoako hurbilenaren hartzea” (Z.O. 10, B. 177, A. 240). Orain Zuberoan bereizten dugu sortzez *primatü* dena; alabaren gatik *etxeko-prima* diogu, semearen gatik *etxeko primü*, baina haurrik ezpada hurbilena *primützen* ahal da.

34. **Sale: Sala** (ikus *Domec*)

35. **Sarië:** gorago ikusi dugu hitz hori hitz lotuetan erabilia (ikus aitzin sarue), orain *sare, sae* deritzaio berdin, Bortuan, ez oterik, ez iratzerik, ez berro, ez sasirik, ez dagoen belar hutsezko bazka zabalari. Nahiz ez dakidan ongi nondik datorren hitza, bearnesez erabili izan da *saroi* itxurapean eta orain tokika *sarra, sarrailh* itxurapean.

36. **Süküne:** “artzainek beren afariak, beren apairuak hartzera ibiltzen diren lekuak *sukune* dira...” (Z.O. 18, B. 230, A. 324-327).

37. **Terkoil:** “araudi zuzena egin izan da gizon ezkonduen esprabitzeko proban jartzeko, zeren beren nabaskerietan emeak (primak) **tercoil** arrak baino gehiago balio duen” (Z.O. 24, B. 390, A. 560).

Beraz kanpotik etorritako gizonak oso fama txarra du, hitzaren azkenak *-oil* salatzen duen bezala eta hitzaren herroa baliman gatzelaniazko *terco*, fr. *obstiné*, baita.

38. **Urre:** “morlaas sosa edo **urre euskaraz..**” Morlas Bearnoko hirian ateratzen zuten dirua. Zuberoaeraz *ürhe* diogu baina idazle zahar gehienek gisa Jakes Belakoak kontsonante ondoko “h” gehienak ez ditu idazten... Lerro batzu urrunago dio: “Zuberoan, 27 diharü (deniers) balio du, hots lauek bi sos eta hiru diharü turnes (deniers tournois) *edo bederatzi ardit* (liard)”. (Z. O. 7, B. 125, A. 182).

* * *

39. **Zainhoa:** “fermance vezialère (sic) eta herriko mintzairan **sainhoa** delako kargua gertatzen zaion gizona ezin da, ez Lextarreko Kortean, ez eta Zuberoako beste korte batean epailari izan”. “Herri hau legez jarri zenean kargu horiek agindu ziren, hala etxe batzuen jabeak sortzez, nahiz ezkontzez, nahiz erostez izan beren parropiako auzogoaren berme bezala inardetsi behar duten etagizon horiez baliatzen da norbaitek beste norbait justiziara, ezkiribu gabe, deitzeko. Kargu hau bilaun da, ta beste ohore, abantailetatik batztertua dago halako gizon arartekoa” (Z.O. II, B. 73, A. 105-106).

40. **Zinbideta:** hitz hori Zuberoako populuaeren batzarrea izendatzeko erabilia, Bela-k *Sylviet* etimologia itxurapean ematen du.

41. **Zin egotzi:** “Larrañe, Urdaitz (Santa Grazi) Hauzeko deputatuei lekuko jendeek diote **cin egotziac** esan nahi baitu zinpean daudenak eta hala Erromatarrek, **conjuratus**, zinkide zioten elkar deitzen zutenak beren egitekoak burutzeko eta delako parropiek deputatu hurak zinkidetzen dituzte beren herri-arazoetan nahaspilarik izan ez dadin, beren egitatetan ez jakinean baizik gerta ez dakien” (Z.O. 3, B. 86-87, A. 125-126).

42. 43. **Züberoa:** “egiaz, euskara jarria den herrialde guzietan eta hizkuntza hortan **Suberoa** dio herriak esan nahi baitu su-beroa (adieraziz “vous, chaud” hitzekin **suberotar** izeneko herritarrek beren jokaeretan bertute bero ta Zabalekoak direla” (Z.O. I, B. 5, A. 13)... “Zuberoak zazpi zati ditu, zazpi vic edo deganerri, Ibar eskuin, Ibar-Exker, Basabüria, Arbailla, Peiriedeko deganerriak, baita Barhuko, Laruntzeko, Arueko, Domintxainekoak. Deganerri bakoitzak urte guziz Maiatz lehenean bere degan edo buruzagia hautatu behar du.”(Z.O. 6, B. 108, A. 157).

Beharbadá, hitz bat edo beste ez dut irakurri, mila ta berrehun orrialde-tako esku idazki hortan; baina uzta hori ez da txarra ta uste dugu beste Foruetan eta beste Edestilari, kondairalarien obretan gehiago lo daudela. BILDUMA hau izan dadila erakusteko gure zuberotar arbasoek, beren lege hiztegi xumea euskara soilez egiten jakin izan zutela. Ederregi lizateke, oraingo unibertsitari argiek, lehenagoko artzainek bezainbeste egin balezate, maileguaren erreztasunera, beti erori gabe.